AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1275

AGINDUA, 2013ko otsailaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Enrique Manuel Pérez García jauna Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Saileko Arabako lurralde-ordezkariaren kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Enrique Manuel Pérez García jauna Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Saileko Arabako lurralde-ordezkariaren kargutik kentzea (511786 kodea, 10 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2013ko martxoaren 8tik aurrera hartuko du indarra.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 25a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.